

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

3. ORDENANTZA

ORDENANZA FISKALA, LUXUZKO GASTUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

Oinarria.

1. artikulua. Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (1995eko 36. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 20koa) 179.etik 183.era bitarteko artikuluetan xedatzen duenari jarraikiz ezarri da.

Zergapeko egintza.

2. artikulua. Luxuzko gastuen gaineko zerga honako hauek sortzen dute:

a) Lau izar edo kalifikazio handiagoa duten hotel, hotel-apartamentu edo egoitza-apartamentuetan egiten diren egonaldiak.

b) Aurreko atalean aipatu diren hotel establezimenduetan hartzen diren kontsumizioak, bai eta ezarrita dauden edo ezarriko diren lehen bi kategorietako jatetxe, kafetegi-jatetxe eta tabernetan, ondoko c) atalean sartzen ez diren "pub" eta diskoteketan eta gisako establezimenduetan hartutakoak ere, edozein dela ere haien kategoria.

c) Dantzaleku eta gisako aisia tokietako sarrerak eta kontsumizioak.

d) Ikuskizun publikoetan egiten diren apustuetan ateratako irabaziak.

e) Kirol edo aisiarako elkarte edo biltokietako bazkideen sarrerako kuota, 60,10 eurotik goitikoak denean.

f) Etxebizitza izatea, katastroko horren balioa edo etxebizitz(ar)en balioa 60.101'21 eurotik goitikoak izanez gero.

g) Ehiza eta arrantza esparru pribatuen aprobetxamendua, edozein dela ere aprobetxamendu horiek ustiatu eta erabiltzeko modua. Ehiza eta arrantza esparru pribatuen kontzeptuetarako, horien gaineko administrazio legeriari jarraituko zaio.

3. artikulua. Zergadun diren aldetik, hauek daude ordaintzera behartuak:

a) Bezeroak haien egonaldi, kontsumizio edo sarreretan, eta sarrerako kuota ordaintzen dutenak, zenbateko horiek jasotzen dituzten enpresa, elkarte edo biltokiak zergadunaren ordezkotza izan behar direlarik.

b) Apustuen irabazlea, horien antolatzailea zergadunaren ordezkotza delarik.

c) Etxebizitzan bizi direnak, edozein dela ere titulua, prekarioa ere barne.

d) Ehiza eta arrantza esparruen titularrak edo edozein tituluren bidez zerga sortzen den unean ehiza edo arrantza aprobetxamenduko tituluaren jabe dena. Esparru horien barreneko ondasunen jabea izanen da zergadunaren ordezkoa, eta horretarako, aprobetxamenduaren titularrari zerga zenbatekoa den galdetzen ahalko dio, ondoren Udalarari ordaintzeko.

Karga-oinarria.

4. artikulua. Hona hemen zerga-oinarria:

a) Egonaldietan, bezeroaren kontura fakturatzen den zenbatekoa, zerga bera kenduta, eta zenbateko hori ezin izanen da inoiz establezimendu kategorian bakoitzeko ofizialki finkatzen den gutienekoa baino tikiagoa izan. Oinarrian ez dira sartuko mantenuaren pentsioa, osoa nahiz partziala, telekomunikazio, garbiketa edo lisaketa gastuak, ezta bezeroari emandako bertze edozein zerbitzu ere, hala nola bezeroak haien ordezkari kontura egiten dituenak.

b) 2. artikulua b) atalak aipatzen dituen kontsumizioetan, horien zenbatekoa. Barrenean sartzen dira edozein inguruabar dela eta, baimenduta dauden gainprezioak.

c) Sarreretan, horien zenbatekoa eta sarrerako prezioan sartzen ez diren kontsumizioena, horrelakorik eginez gero, bai eta kontsumizio guztiak ere, dantzaleku eta gisako aisiarako tokietan sartzeagatik ordaintzen ez denean.

d) Apustuetan, irabazi gordinen zenbatekoa, galerak eta komisioak kendu gabe, agente edo artekariak parte hartuz trabesa izenekoetan egindakoak salbu, horietan oinarria apustu irabazleen zenbatekoa soilik izanen baita.

e) Kirol edo aisiarako elkarte edo biltokien sarrerako kuotetan, horien zenbateko osoa. Zatika edo epeka ordaindu behar denean, oinarria hasierako kuotaren eta geroratu edo zatitutakoaren arteko batura osoa izanen da. Akzioak edo entitatearen kapitalaren partaidetza tituluak erosi edo ordaintzeagatik bertako partaide izateko eskubidea hartuz gero, akzio edo partaidetza kuota horien zenbatekoa izanen da sarrerako kuota.

f) Etxebizitzetan, zergadunak udal mugapean bere esku d(it)uen etxebizitz(ar)en katastroko balioa.

g) Ehiza eta arrantza esparru pribatuetan, aprobetxamenduaren banaz bertzekoa, eta hori Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 181. artikuluan xedatutakoaren arabera finkatuko da.

Karga-tasa.

5. artikulua. Zergaren tasak ezin izanen ditu muga hauek gainditu eta urtero finkatu eta onetsiko da udal aurrekontu arruntarekin batera:

a) Lau izarreko hoteletako egonaldietan, %2,5 eta lau baino gehiago dituztenetan, %3.

b) Ordenantza honen 2. artikulua b) atalean aipatzen diren kontsumizioetan, %5.

c) Ordenantza honen 2. artikulua c) atalean aipatzen diren sarrera eta kontsumizioetan, %50.

d) Ordenantza honen 2. artikulua d) atalean aipatzen diren apustuetan, %15.

e) Kirol edo aisiarako elkarte edo biltokietako bazkideen sarrerako kuotetan, %20.

g) Ehiza eta arrantza barruti pribatuen aprobetxamenduetan, %20.

Tributu-kuota.

6. artikulua. Tributu-kuota zehazteko, karga oinarriari dagokion tarifa aplikatuko zaio.

7. artikulua. Zerga sorrarazten da:

a) Egonaldi, kontsumizio, sarrera edo sarrerako kuotak ordaintzen diren une berean.

b) Apustuetan, irabaziak hartzen diren unean berean.

c) Urteroko abenduaren 31n, etxebizitzetara eta ehiza eta arrantza esparruen aprobetxamenduetara dagokienez.

Zergaren kudeaketa.

8. artikulua. Zerga likidatzeko, ordenantza honen 3. artikuluan a) atalean aipatzen diren subjektu pasiboek, hilabetero, zinpeko aitortza aurkeztuko dute, bikoizturik, zerga ordaintzera behartuta dauden eragiketen gainean, emanen zaien eredu ofizialari jarraikiz, eta haren kopia funtzionarioak behar bezala bete ondotik, itzuliko zaio interesdunari, aurkeztu izanaren gordekintako balio diezaion.

Hilabeteren batean eragiketarik ez bada, aitortza negatiboa aurkeztu beharko da, horren zergatia adierazten duten arrazoiak emanaz. Jarduera uzteagatik baldin bada, arrazoi hori aipatu beharko da, jardura sailkatuen gaineko zerga baxa hartu dela egiaztatuz, eta orduan hurrengo aitortza negatiboak aurkeztu beharretik libre geratuko da.

Aitortza aurkezteaz bat, zergadunaren ordezkari aitortzetik ateratzen den zergaren zenbatekoa ordaindu beharko du.

Hilabete bakoitzeko aitortza hurrengo hilabetearen lehen hamar egunetan aurkeztu beharko da zerga bulegoan.

Zerga honen menpeko zergadunen ordezkariak bi erregistro liburu eduki beharko dituzte: bata, erosketena, eta bertzea, salmentena.

Lehenbizikoan, zerga honetan ondorioz edo zerikusia duten gauza edo gastu guztien erosketa eta gastuen faktura guztiak beharko dituzte jaso.

Bigarrenetan, gauza edo zerbitzuen prezioa eta egunero egiten diren eragiketen zenbatekoa beharko dira agertu. Eragiketarako zerga-tasa ezberdinei loturik egonez gero, behar bezala bereizita ohartaraziko dira.

Halaber, Administrazioaren eskura izanen dituzte jatorrizko fakturak, bai eta gainerako erosketen ordainagiriak ere. Agiri horiek beren erregistroko idazpen zenbakia eduki beharko dute.

Eragiketetan erregistro-makinak erabiliz gero, kontu-zerrendak administrazioarentzat gordeko dira, eta halaber, beharretik egonen dira zerga honi loturiko eragiketetan erabiltzen diren salmenten ordainagiri guztiak gordetzera.

9. artikulua. Ordenantza honen 3. artikulua b) atalean aipatzen den subjektu pasiboen zerga likidatzeko, apustuen antolatzaileak aitortzen beharko du, bikoizturik, emanen zaion eredu ofizialaren bidez, bertan ageri diren datu guztiak eskaintzen dituela, eta aitortpenarekin batera haren kuota ordaindu.

Zergen sorrarazpen egunetik hamar egun iragan baino lehen aurkeztu beharko dira aitortpenak eta kuota ordaindu.

10. artikulua. Ordenantza honen 3. artikulua c) eta d) atalean aipatzen diren subjektu pasiboek aitortzen beharko dute, bikoizturik, emanen zaion eredu ofizialaren bidez, bertan ageri diren datu guztiak eskaintzen dituztela, eta aitortpenarekin batera kuota ordaindu.

Urte bakoitzeko abenduaren 31 ondoko urtarrilaren lehen hamabostaldian aurkeztu beharko dira aitortpenak eta kuota ordaindu.

11. artikulua. Ordenantza honen 10,11 eta 12. artikuluetan jasotzen diren likidazioak, erran den gisan eginda, behin-behinekoak izanen dira harik eta Admininistrazioak behar bezala frogatu eta behin betiko bihurtzen dituen arte.

Udalak inongo oharrik egiten ez badu, kitaturiko kuota behin betikotzat hartuko dira aitortpena aurkeztu eta bost urte iragaten direnean.

12. artikulua. Subjektu pasiboak behartuak daude zerga honi loturiko eragiketarik edo egitateak gertatzen diren lokal, ikuskizun, etxebizitza eta ehiza eta arrantza esparruetan, zerga honen gaineko ikusketa lanak egiteko agindua hartzen duten udal langileak, behar bezalako baimenaren jabe direla, sartzen uztera. Halaber, behartuak daude zerga honen Ikuskaritzari laguntzera karga oinarria zehazteko behar diren liburu eta agiriak egiaztatzerakoan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honek indarra hartuko du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean aurreikusitako tramiteak bete ondoan.

Bigarrena.-Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean (1995.eko 36. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 20koa) eta Ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Indarririk gabe uzten dira, baliorik eta eraginik ez dutela, ordenantza hau osoki betetzeari kontra edo traba egiten dioten udal mailako lehenagoko xedapen guztiak.